

BBDW22

# JARDUEREN DEIALDI IREKIA



# AURKIBIDEA

## Deialdia

1. Hitzaurrea	P. 03
2. Zer da BBDW?	P. 04
3. Tema BBDW22: ECO-SISTEMA / ERRESONANTZIA	P. 04
4. Jarduera-motak	P. 05
5. Nork har dezake parte?	P. 07
6. Zergatik parte hartu?	P. 07
7. Nola aurkeztu proposamenak?	P. 08
8. Proposamenen balorazioa	P. 08
9. Funtsezko datak	P. 09
10. Deialdirako kontaktua	P. 10
11. BBDWko antolaketa-taldea	P. 10

**BBDW22 online inprimakia**

# DEIALDIA

BBDW22

## ECO-SISTEMA /ERRESONANTZIA

BBDW22rako jarduerak hautatzeko deialdi irekia

### 01 - Hitzaurrea

---

Dokumentu hau Bizkaiko diseinuaren ekosistema eta sormen-industriak osatzen dituzten agente guztiei (pertsonek eta erakundeak) egindako dei bat da, hurrengo Bilbao Bizkaia Design Week 2022 (BBDW22) programan sar daitezkeen jarduerak proposa ditzaten.

Dokumentuaren lehenengo zatian, labur-labur deskribatu da BBDW zer den eta 2022. urteko edizioeko gaia. Eta bigarrenean, jardueren proposamen egokia kontuan hartzeko alderdiak zehaztu dira. Proposamenak aurkezteko modua **ONLINE INPRIMAKI** honen bidez izango da, **2022ko ekainaren 30era arte, osteguna**.

BBDWk Bizkaiko agente sortzaileen ECO-SISTEMA aniztasunetik (tipologiak, sektoreak, ibilbideak...) entzuten eta artikulatzen jarriko du arreta 2022ko eta 2023ko edizioetan. Horregatik, 2022an, ERRESONANTZIA izenburupean, lurraldeak nola dar-dar egiten duen jakin nahi dugu, diseinua eta sormena nola berpizten diren alderdi guztietan.

Espero dugu deialdia erakargarria eta iradokitzailea izatea eta, zuen proposamenei esker, espero dugu programazioa gero eta askotarikoagoa, parte-hartzaileagoa, kalitatezkoagoa eta lurraldeko sormen-sektoreen trebetasunen eta indarraren adierazgarriagoa izatea.

ESKERRIK ASKO!

## 02 - Zer da BBDW?

---

Bilboko Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ekimen bat da Bilbao Bizkaia Design Week (BBDW). Horren bidez, diseinua eta sormen-industriak sustatu nahi dituzte, lurraldearen ekonomia garatzeko eta nazioartean proiektatzeko sektore gisa.

BBDWren helburuak honako hauek dira: diseinu- eta sormen-sektorearen lana ezagutzera ematea eta balioestea eta gainerako sektore ekonomikoetara eta gizartera hurbiltzea; adituen arteko networkinga, elkarlana eta ezagutza-trukea bultzatzea; tokiko talentua nazioartekoarekin lotzea, eta gero eta publiko zabalagoa erakartzea, Bizkaiko ekonomia-sarean eta giza sarean inpartu handiagoa bilatuz.

2014. urtean Bilbo UNESCOren Sormen Hirien Sarean sartu zenetik, BBDW urtero galdu ezin dugun hitzordu bat da.

## 03 - BBDW22 gaia: ECO-SISTEMA / ERRESONANTZIA

---

Ekosistema bat organismo bizidunen komunitate batek eta erlazionatzen diren ingurune fisikoak osatzen duten sistema biologiko bat da. Habitat bera partekatzen duten eta independenteak diren agenteek osatzen duten unitatea da. Gero eta gehiago, ekosistemaren metafora biomimetikoa gure gizarte-, harreman-, antolaketa-, ekoizpen-, edo kultura-ereduak modu integratuan aztertzeke eta diseinatzeko erabiltzen da.

BBDWk Bizkaiko diseinuaren eta sormen-industrien ECO-SISTEMA entzutera eta artikulatzen laguntzera bideratuko ditu 2022ko eta 2023ko edizioak, berrikuntzaren eta elkarlanaren ikuspegitik. Helburua da lurraldeko agente sortaileei balioa ematea, haien aniztasuna erakustea (tipologiak, sektoreak, ibilbideak...) eta harreman sinbiotikoak eta mutualistak sustatzea, bai sormen-sektoreen artean, bai beste alderdi ekonomiko eta sozial batzuekin.

2022an, **ERRESONANTZIA** izenburupean, lurraldeak nola dar-dar egiten duen entzuten zentratuko gara; alderdi guztietan diseinuak eta sormenak nola durundatzen duten entzuten. Eta 2023an, **ARTIKULAZIOA** izenburupean, sistemikoan jarriko dugu arreta, entzun ondoren lehentasunezkoztat jotzen diren ekosistemako elementuen proposamen-antolamendua egingo da.

**ERRESONANTZIAK** “ECon” (oihartzuna gaztelaniaz) jartzen du arreta, fenomeno akustiko gisa, entzutekoa eta errepikatzekoa. “Erresonantzia” kontzeptutik abiatuko gara, Hartmut Rosa soziologoaren fisikaren eremutik hartuta, subjektu-objektuaren arteko harremana bi aldeek elkar estimulatzeko duten bibrazio-sistema gisa deskribatzeko. Bizitza gero eta bizkorrago baten aurrean, Rosak erresonantziarekin entzute jarrera sakona proposatu du, agente guztiek elkarrekin bizitza on bat eraikitzean ahots propioarekin hitz egiteko aukera izan dezaten.

BBDW22 Bizkaiko sormen-ekosistemaren entzute aktiboko erresonantzia-ariketa gisa proposatu da. Testuinguru hurbilenean sakontzea, agenteak eta haien proposamen berritzaileenak ezagutzea, interesak identifikatzea eta joera nabarmenenak ikusaraztea. Zer dagoen eta zer egiten ari den kontuan hartzea, garatu beharreko potentzietan arreta jarriz, bai eta indartzea eta hobetzea beharrezkoa diren puntuei erreparatuz ere.

## 04 - Jarduera-motak

---

Edizio honetan, jardueren proposamenak BBDW22ko programaren bi atal osagarritan parte hartzeko egin ahal izango dira:

1. **ERRESONANTZIA:** gaiari zuzenean lotuta dauden jardueretarako, hau da, mota guztietako ekosistemak diseinatu, sortu eta garatu (ingurumenekoak, berrikuntzakoak, antolaketakoak, ekoizpenekoak...), bai eta entzuteko, aztertze edo mapatzeko prozesuak ere.
2. **ECOSISTEMA:** Bizkaiko agenteen, praktiken eta diseinuaren eta sormen-industrien joeren aniztasuna adierazten duten mota guztietako jardueretarako. Dagoeneko ikertzen eta lantzen ari zireten guztiari buruzko jarduerak proposa ditzazuen interesatzen zaigu, bereizgarriena, berritzaileena edo susperraldian dagoena nagusituz.

Jarduerak **2022ko azaroaren 17tik 27ra** egin beharko dira (beste data batzuetan hasten edo amaitzen diren jarduerak onartuko dira, betiere, horietako batzuk 17tik 27ra bitartean egiten badira).

Proposamenen aurkezpena errazteko asmoz, ondoren, gida moduan, bi koadro gehitu ditugu, horiek planteatzerakoan kontuan hartu beharreko aukera asko biltzen dituztenak, bai eta BBDWren helburu orokorrak ere.

## PROPOSAMENAK DEFINITZEKO GURUTZATZE-EREMUAK

SEKTORE SORTZAILEAK	FORMATUAK	AUKERA-LURRALDEAK	HARTZAILEAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Animazioa</li> <li>• Arkitektura eta hirigintza</li> <li>• Artisautza</li> <li>• Ikus-entzunezkoak</li> <li>• Diseinua</li> <li>• Gastronomía</li> <li>• Ilustrazioa</li> <li>• Interiorismoa</li> <li>• Makerak</li> <li>• Moda</li> <li>• Publizitatea</li> <li>• Teknologia</li> <li>• Diziplinaz gaidikoa</li> <li>• Bideojokoak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bulegora bertaratuak</li> <li>• Digitalak</li> <li>• Mistoa</li> <li>• Hitzaldiak</li> <li>• Topaketak</li> <li>• Erakusketak</li> <li>• Jaiak</li> <li>• Instalazioak</li> <li>• Jolasak</li> <li>• Mahai-inguruak</li> <li>• Pasarelak</li> <li>• Aurkezpenak</li> <li>• Proiektzioak</li> <li>• Argitalpenak</li> <li>• Tailerrak/Workshopak</li> <li>• Bisitak/Ibilbideak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Elikagaiak</li> <li>• Zirkulartasuna</li> <li>• Kultura</li> <li>• Zaintzak</li> <li>• Aniztasuna</li> <li>• Zahartzea</li> <li>• Prestakuntza</li> <li>• Generoa</li> <li>• Migrazioa</li> <li>• Aisialdia</li> <li>• Parte-hartzea</li> <li>• Osasuna</li> <li>• Zerbitzu aurreratuak</li> <li>• Jasangarritasuna</li> <li>• Eraldaketa digitala</li> <li>• Hiri-eraldaketa</li> <li>• Turismoa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Diseinuaren eta sormen-industrien profesionalak</li> <li>• Ikasleak eta gazte profesionalak</li> <li>• Aukera-lurraldeei lotutako beste sektore ekonomiko eta sozial batzuetako profesionalak</li> <li>• Sektore publikoko arduradun instituzionalak eta profesionalak</li> <li>• Herritarrak, oro har</li> </ul>

## BBDW-REN HELBURU OROKORRAK

1. HELBURUA ELKARLANA TRUKEA ETA NETWORKINGA SUSTATZEA	2. HELBURUA EZAGUTARAZTEA	3. HELBURUA ERAKUSTEA ETA SENTSIBILIZATZEA
<p><b>1 - A HELBURUA</b> Sormen-sektorearen eta gainerako sektoreen arteko lankidetzaren sustatzea, industriaren sektorearen berrikuntza eta lehiakortasuna bultzatzeko, sormenaren, pentsamendu sortzailearen eta diseinuaren bidez.</p>	<p><b>2 - A HELBURUA</b> Tokiko talentuaren ezagutarazi eta nazioartekoarekin lotzea.</p>	<p><b>3 - A HELBURUA</b> Diseinuaren eta, oro har, sormen-industrien arloko joerak erakustea, tokiko, eskualdeko, estatuko eta nazioarteko esperientzia eta jardueraren inspiratzaileak erakartzea sustatuz.</p>
<p><b>1 - B HELBURUA</b> Profesionalek eta talentu berriek haien jarduerari balioa gehituko dioten ezagutzak zabaltzeko eta partekatze gune bat sortzea.</p>	<p><b>2 - B HELBURUA</b> Bilbo UNESCOren Sormen Hirien sarearen parte dela ikustaraztea, Diseinuaren kategorian, eta horrek hiriari eta sektorearen profesionali ematen dien balioa erakustea.</p>	<p><b>3 - B HELBURUA</b> Herritarrak sentibilizatzea diseinuak eta sormenak hiri-ingurunearen eta ekonomia-sarearen bilakaeran duten garrantziaz, eta esperientzia-jardueren eta -ekintzen bidez egitea.</p>
<p><b>1 - C HELBURUA</b> Hezkuntza, enpresa eta erakundearen eta sormen-sektorearen arteko networkinga sustatzen duten topaguneak egitea.</p>		

## 05 - Nork har dezake parte?

---

BBDWko deialdia diseinu eta sormenaren arloari lotuta dauden mota guztietako entitate, enpresa edo profesionaleri zuzenduta dago. Ekosistemaren aberastasuna eta erresilientzia bere aniztasunean oinarritzen dira!

- ERRESONANTZIA atalerako eskaerak edozein jatorritakoak izan daitezke, betiere, Bizkaiko lurraldean garatzen badira edo harekin lotura ezartzen badute.
- ECO-SISTEMA atalerako eskaerak jarduera profesionala Bilbotik edo Bizkaitik garatzen duten agenteetara mugatuko dira.

## 06 - Zergatik parte hartu?

---

Lehenik eta behin, parte-hartzen baduzu, parte zaren diseinuaren eta sormenaren ekosistema aberasten eta balioesten lagunduko duzu. Eta, gainera, BBDWk testuinguru egoki bat eskaintzen du diseinuaren eta sormenaren profesionalak zuen lana, ikerketak edo bestelako kezak kualitatiboki aurkezteko, zuen interes-taldeekin eta xede publikoekin zuzenean konektatuz.

Hautatutako proposamenak honako onura hauek izango dituzte:

- Diseinuaren eta sormenaren arloan tokiko eta estatuko ekitaldi finkatu eta erreferente batean parte hartzea.
- Programa komisariatu, zaindu eta koherente batean parte hartzea, multzoari balio erantsia eta jarduera bakoitzak bere aldetik duen inpaktua baino handiagoa ematen diona.
- Tokiko, estatuko eta nazioarteko komunikazio- eta sustapen-kanpaina batean egotea.
- BBDW22ko webgune ofizialean presentzia izatea.
- BiDCen (eta Bilbao Ekintza eta BEAZ) sare sozialetan BBDW22 zabaltzea.
- BBDW22en identifikatzailea eta programa edukitzea jardueraren espazioan jartzeko.
- Komunikazio-ekintza propioetan BBDWren logotipoa erabiltzeko eskubidea.
- BBDWn parte hartzen duten sormen-sektoreko aditu eta profesionalekin harremanetan egoteko aukera.

- Harremanetan egotea UNESCOren Sormen Hirien sareko beste hiri batzuekin. Bilbo, hain zuzen, 2014. urtetik da kidea Diseinuaren kategorian.
- BBDWko Idazkaritza Teknikorako sarbidea, bai eta programatutako jarduera egitea errazteko beharrezkoak izan daitezkeen bestelako baliabideetarako sarbidea ere.

## 07 - Nola aurkeztu proposamenak?

---

Proposamenak **online inprimaki** baten bidez aurkeztu behar dira **2022ko ekainaren 30era arte, osteguna**. Agente berak jarduera bat baino gehiago aurkezten badu, inprimaki osoa berriro bete beharko du (aurkeztu nahi duen jarduera adina aldiz).

Jarduera guztiak modu egokian kudeatu ahal izateko, zuen ekimenen xehetasunen berri izan behar dugu. Informazio argia, zehatza eta iradokitzailea lagungarria izango da horiek hobeto baloratzeko.

Inprimakiak honako hauek biltzen ditu: aurkezten den agenteari buruzko informazioa; jarduerari, haren edukiari eta helburuari buruzko alderdi deskriptiboak, eta teknikoagoak edo logistikoagoak diren beste alderdi batzuk. Inprimakia osorik irakurri betetzen hasi baino lehen. Eta maitasunez bete ezazue!

Komisariotzako eta Antolaketako lantaldeek beharrezkoa den euskarria emango dute zalantzak argitzeko eta jarduera hobeto bideratzeko, betiere, gaiarekin eta programazioarekin bat etorritik.

ONLINE INPRIMAKIA

## 08 - Proposamenen balorazioa

---

BBDWren antolakundeak edizio honen gaiaren eta BBDWren helburu orokorren arabera jasotako proposamen guztiak aztertuko ditu, eta horien bideragarritasuna eta egokitasuna baloratuko ditu, honako irizpide hauek konbinatuta eta haztatuta:

- Proposamenaren kalitatea.
- BBDW22ren gaiarekin lerrokatzea.
- BBDWren helburu orokorretako batekin edo gehiagorekin lerrokatzea.
- Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH) lerrokatzea.



- Gaitasun teknikoa eta jarduera modu egokian gauzatzeko baliabide propioak izatea.
- Diseinuaren eta sormen-industrietako ekosistemaren agente bi edo gehiagoren artean jarduera antolatzen laguntzea.
- Jarduera garatzeko proposatutako gunea egokitzea (gune-mota, edukiera, kokapena...).
- Proposamenaren deskribapenean sartutako berdintasun-, aniztasun- eta irisgarritasun-irizpideak.
- Programazio osoaren eskakizunetara egokitzeko malgutasuna, jardueren arteko harremanak sortzeko, gainjartzeak saihesteko eta abar.

Jasotako proposamenetan oinarrituta, ahalik eta programa aberatsena eta orekatuena antolatuko da. BBDWren espirituak parte-hartzaileen aniztasuna erakutsi nahi du, tipologiari, jardueraren eremuei, ibilbide profesionalari, eduki eta formatuei, xede publikoei eta abarri dagokionez. Hori dela eta, nahiz eta parte-hartzaile bakoitzak nahi beste jarduera aurkezteko askatasuna duen (bat inprimaki bakoitzeko), antolakundeak agente beraren jarduera hautatuen kopurua mugatu ahal izango du, eskaera kopuruaren, ezaugarrien eta kalitatearen arabera.

Azken hautaketa BBDWko Antolaketa Taldeak egingo du (Bilbao Ekintza eta BEAZ), 2022ko edizioko Komisariotza Lantaldearen laguntzarekin (ColaBoraBora). Nahiz eta jarduera hautatua izan, BBDW erakundeak egokitzapenak eska ditzake, BBDW22ren helburuekin edo programa osoarekin koordinazio edo lerrokatze hobea izateko.

## 09 - Funtsezko datak

---

Hauexek dira kontuan hartu beharreko datarik garrantzitsuenak:

- **Deialdi irekia argitaratzea:** 2022/06/01
- **Proposamenak jasotzea:** ekainaren 30era arte
- **Proposamena hautatzea:** 2022/07/12
- **Jarduera bakoitzaren edukiak BBDWko webgunera igotzea:** irailaren 30era arte.
- **BBDW22 jarduerak garatzea:** 2022/11/17-27

## 10 - Deialdirako, honako honekin jarri harremanetan

---

Idazkaritza Teknikoa, Innevento

Gloria Pérez-Castresana eta Paula Córdoba

[info@bidc.eus](mailto:info@bidc.eus)

## 11 - BBDWko antolaketa-taldea

---

### **Bilbao Ekintza, antolaketa-taldea**

Carolina Gutiérrez eta Conchi Asúa

[info@bidc.eus](mailto:info@bidc.eus)

### **BEAZ, antolaketa-taldea**

Lucía Graña eta Maitane Bilbao

[info@bidc.eus](mailto:info@bidc.eus)

### **ColaBoraBora, Komisariotzaren lantaldea**

Iranzu Guijarro, Leire García eta Ricardo Antón

[iran@colaborabora.org](mailto:iran@colaborabora.org)

### **Idazkaritza Teknikoa, Innevento**

Gloria Pérez-Castresana eta Paula Córdoba

[info@bidc.eus](mailto:info@bidc.eus)

ZUEN PROPOSAMENEN ZAIN GAUDE  
**EKOSISTEMA DENAK GARA!**